

## "Movimiento"aren Elkarteak

*Alderdi*, 295. zk., 1974-11/12.

Esan nai nabarmena ba du gaurko "Asociaciones" deitzen asi diren elkarteak neurritzat datorren Estatutoa, delako Cortes oien artaldeak izan litzazken iritziak alde batera utzi eta zuzenki agindu-dekretoz emandako lege baten bitartez sortzeak.

Baina utzi ditzagun *nola* etorri danaren gure gibel-asmoak alde batera, eta aztertu dezagun aginduak berak *diona*.

Leengo oarra, asierakoa eta funtsezkoa: alderdi izatera irixten ez diren elkarte-politiko oiek "Movimiento"-aren barruan eta eurez baliatzeko sortzen dira; Estatutoak argiro zeazkatzen du elkarte oiek eraman ditzatezken izenak ez dutela ala-olako edo "Movimiento"-aren aurkakoak izan bear, eta "Movimiento" onek bakarrik izango duela elkarte oiek onartzeko edo desegiteko lege-indarra.

Bigarren: elkarte-politiko oiek "Movimiento"-aren aginduei zintzotasuna zor die.

Irugarren: onelako politika-elkarte batek gutxienez 25.000 kidek osatu bear dute; ez dira asko, baina pixka oiek, eta "Movimiento"-ak agintzen duen neurri berezi batean, 15 probintzietan sakabanatuak izan bear dute. Espanolei "Movimientoa"-aren neurri au inoxentekeri bat irudituko zaiote, baina katalanei eta euskotarrei ez.

Laugarren oarra: klasez, asmo politikoez eta jeografiaz ain sakabanatuta agertzen diren elkarte-politiko oiek ezin dezakete, gero, nolainai asmatutako politika-jomugetara bideratu.

Ba da, eta bostgarren puntua da au, onelako politika-elkarte bat osatu nai duanarentzat eragingarri bat: aitajauna edo aitabesoetakoa izango du, "Movimiento"a, eta onen emakortasunari esker, osatzen duten kide-zenbatzaren neurri berean diru laguntza baten saria.

Eta seigarren, eta azkena: ardientzat jartzen den sari onen neurri berean agintzen da, arkume-itxurgatzera ausartzen diren otsoentzat zigorra: ekintza astunak, eta beti "Movimiento" beraren iritzi, miloi erdi batetik 5 miloirainoko diru-zigorra. Ala ere, ba du onek gozagarri bat: uts arina 10.000-tik 500.000 pesetarako diru-zigorra besterik ez dute izango.

Eta emen, elkarte-politiko onetarako gertatu duten estatuto au berezibiziko negozioa izango dalakoaren susmoz, usten dugu "Movimiento" au bertan geldik.